

Muga guztien gaineratik... Bateginik

Euskal Herriko Ikastolen Konfederakuntza eta EKBk joan den astean eman zuten ezagutzera "Bateginik" izeneko kanpaina. Hasiera hasieratik piztu da eztabaida ekimen honen inguruan. Batzuren uztez, bategin(ezin)lik dabil abertzalegoa. Ez bide da posible, zintzoki eta inolako azpikorik gabe, eritzi ezberdineko euskaltzaleak batzea. Zorionez, —ala zoritxarrez?— bada herri honetan eritzi ezkor ho-

rekin bat ez datorrenik. Aurkezpen ekitaldian aitortu zen bezala, egia da maiz partiduleriak abertzaletasunaren helburuen gaineratik nagusitzen direla. Baina egia da, era berean, euskara eta ikastolaren inguruan behin baino gehiagotan lortu dela dixosozko batasuna. AEKK antolatutako "Korrika" edota Bertsolarien Txapelketa Nagusia dira horren adibiderik garbienak. Kanpainak "Bateginik" jardutea du

helburu. Muga arrotzen gaineratik, bat eginik; bakoitzaren pentsamoldea ahazteke, asmo desberdineko euskaltzaleak lanean, bat eginik... Posible den ala ez hausnartzen has-teak gutxirako balio du, kontutan hartzen ez bada historia honen protagonisten zer dioten. Horrexegatik jo dugu kanpainaren antolakuntzan zeresanik dutenengana, beren eritziak jaso eta ezagutzera eman asmoz.

Mistika berri baten beharra

NIRE ustez "Bateginik" kanpaina prestatu eta antolatzea bide on bat izan da. Kanpaina honek elkartasun helburu bat erakusten bait du, iparralde eta Nafarroako ikastolei laguntza emateko helburua hain zuzen. Nik uste kanpaina honetaz baliatu behar garela, kanpaina honetaz eta euskararen alde

egiten den lan guztiaz, Euskadiri buruzko mistika berri bat sortzeko.

Kanpainarako bideak markaturik daude dagoeneko. Aurreko egunean Bilbon izandako prentsaurrekoan, kanpainari buruzko zehaztasun guztiak adierazi ziren; kanpaina nola burutu behar den, nolako izango den.

Jadanik kanpaina martxan dago.

Azken egun hauetan izan dira kanpaina honen gainean halako eritzi negatiboak, baina nik pentsatzen dut azkenean zentzu ona nagusituko dela eta "Bateginik" kanpaina aurrera atera eta bere helburuak harrapatuko dituela.

Jesus Intxausti
"Uzturre" (EAJ)

Aurrera jarraitzeko

MARTXAN jarri den kanpaina berri hau, "Bateginik" izeneko hau, ona delakoan nago, euskararen alde egiten den lan guztia ona bait da. Eta ona da batez ere, kasu honetan bezala, hiru partiduk elkar egin dutelako ekimen honi baiezkota eman eta hizkuntzaren aldeko kanpaina horri laguntzeko.

Ni neu hor barruan aurkitzen naiz Eusko Alkartasunaren izenean lanean, eta ikastolak, hain beste lan egin duten ikastolak daude asmo horren ardatz bezala.

Nik uste dut garrantzi handikoa dela martxan jarri dugun kanpaina hau eta pentsatzen dut inolako arazorik gabe aurrera jarraituko duela. Bi hilabe-

teko epea jarri dugu aurretik, eta denbora horretan lan handia egingo dugulakoan nago.

Berrehun milioi pezeta eta seirehun mila sinadura jasotzea ez da txantxetako helburua. Baina jomugak gora jarri behar dira beti, eta nik uste dut, horretara iristen ez bagara ere, ez gara urrutitako ibiliko. Ez gara atzean geratuko asmo honetan.

Martin Ugalde
(EA)

Guztiz positiboa

GUZTIZ pozgarria da azkenean kulturaren aldeko ekimen batean, eta hizkuntzaren alde guztiz bereziki, halako akordio bat lortu dela ikustea. Oso inportantea izan da. Konprenitzen dut politika mailan diferentziak izatea eta akordioak guztiz zailak izatea. Baina euskara dagoen heinean, oraindik ere as-

kotan elkartu ezinik ibiltzea iruditzen zait guztiz kaltegarria.

Aide horretatik, "Bateginik" kanpaina elkarrekin egitea oso positiboa da. Kanpaina honek EA, PNV eta HB elkartu dituen aldetik guztiz txalagarria dela aitortu beharra dago.

Benetan ez da konprenitzen nola izan daitekeen pertsona

bat euskaltzale, abertzale edo horrelako zerbait eta oraindik ere honi buruz uzkur agertzea edo atzetik hankatrabak jartzen ibiltzea, batzuk ari diren bezala.

Benetan ez da konprenitzen. Edo hobeto esan, konprenitzen da, horrela jokatzaren dutenak, argi eta garbi esaten baldin bada, ez direlako abertzaleak. Eta besterik ez.

Jose Luis Alvarez
"Txillardegia" (HB)

Indarrean abiatu da "Bateginik"

EUSKARAREN defentsarako eta berreskurapenerako ekintzaldia izango da funtsean. Euskara hizkuntza nazionala, eta euskal eskola nazionala da horren goiburua. Horren zuzeneko helburuak ezagunak dira. Galantak dira; baina lortuko ditugu herri osoak horretan parte hartzean.

Euskal Herri osoko indar sozial, politiko eta kulturazko guztien baterakuntzarako ahale-

ginik haundiena eta ederrena da "Bateginik" kanpaina. Hortxe du bere indarra.

Bide horretatik dagoeneko Euskal Herri osoko auzo, herri eta herrialdeetan sortuak eta eratuak dira kanpaina batzordeak. Lanean hasiak dira gogoz kanpaina helburura eramateko. Talde, elkarte eta erakunde guztiak eta herritar denak deitu nahi nituzke horietan parte hartzea ahal den indar gehienak

bateratzeko eta koordinatzeko. Asmoa bat bere dugu: euskararen berreskurapen osoa.

Azken urteotako hainbat ulertueztinatan geratuak izan daitezkeen susmo txarrak deseginez joango dira, ziur nago. Eta kanpainaren hasierā honetan nonbait egon daitezkeen zalantzak berehalakoan gaitdituko ditu kanpainaren beraren ibilbide iriki eta zabalak. Horretan saiatu behar dugu denok.

P. Agirrebaltzategi
(EKB)

Batasuna, lehen helburua

BATEGINIK kanpainak hiru helburu argi ditu: euskara inguruko eritziak zuzertu eta indartu; 200 milioi pezeta bildu, iparralde eta Nafarroako ikastolei laguntzeko; eta agiri baten inguruan 600 mila firmatik gora bildu Europako Parlamentura eta, bidaltzeko.

Baina nik uste dut laugarren helburu bat ezarri behar genioke "Bateginik" kanpaina honi, eta hain zuzen izango litzateke bi hilabete barru euskararen inguruan mugitzen garen guztiak bat eginik egotea.

Oso zaila da herri honetan zerbaiten inguruan bat egitea. Eritzi oso desberdinak dauz-

kagu, gehiegi ideologizatuta gaude eta askotan zer egiten den begiratu beharrean, nork egiten duen begiratzen bait diogu. Momentu honetan, beharbada, helburu nagusia abertzale guztiak —bai herritarrak, bai politikariak—, guztien euskara herri honetan hizkuntza nazionala bezala ezartzeko, bat eginik gaudela erakustea.

Antonio Kanpos
(EHIK)

